

## **Bederatzigarrena.**

### **ESKORIATZAKO UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERA EDOTA EKITALDI SOZIOKULTURALETARA JOATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

#### **1. Artikulua. Kontzeptua.**

Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuko 41.etik 47.era arteko eta 127. artikuluetan jasotakoaren arabera, Eskoriatzako Udalak antolatutako jarduera edota ekitaldi soziokulturaletara joategatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzen dira.

#### **2. artikulua. Ordaintzeko obligazioa.**

Prezioa jarrita duten zerbitzu edo jardueretara joango diren pertsona naturalek edo juridikoek ordaindu beharko dute ordenantza honetan araututako prezio publikoak.

#### **3. artikulua. Zergapeko egitatea eta zortzapena.**

Zergapeko egitatea da udaleko departamentuek antolatu eta prezio publikoa ordaindu beharreko gizarte, kultur, kirol edo antzeko izaerako ekitaldietara joatea edota jardueretan parte hartzea.

Sortzapena, berriz, ekitaldira joatea edo jardueran parte hartzea eskatzen den unean sortuko da.

#### **4. artikulua. Tarifak.**

Ekitaldira joateko edo jardueran parte hartzeko prezio publikoa Alkatetzak erabakiko du txosten ekonomikoa eta dagokion batzorde informatzailearen diktamena jaso ondoren, eta, betiere, ekintzaren kostu osoaren arabera izango da.

#### **5. artikulua. Hobariak.**

Prezio publikoa finkatzeko erabakian jasoko dira prezio publiko bakoitzerako udalak erabakitako zerga hobariak, bai subjektiboak (zergapekoa kontuan hartzen dutenak) bai objektiboak (udal prestazioaren izaeraren edo edukiaren arabera).

#### **6. artikulua- Kobratzeko prozedura.**

1. Ekitaldirako sarrera edo jardueran parte hartzea eskatzen den unean egin beharko da ordainketa, eta ordaindutakoa itzuliko da prezioaren zergapekoari egotzi ezin dakizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez denean.

2. Prezio publiko hauengatik zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

#### **7. artikulua. Kudeaketa.**

1. Prezio publikoa ordaintzeak dagokion zerbitzu edo jarduerako arauak osorik onartzea dakar.
2. Ordaindutako prezio publikoaren faktura ematea eskatu ahal izango du erabiltzaileak.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, Udalbatzarrak 2015eko urriaren 20an egindako osoko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. Indarrean izango da berariaz aldatu edo indargabetu art